

# TOLOSAKO TOKIKO AGENDA 21

## AZPIADIERAZLEEN DEFINIZIOA, BALIOEN BILAKAERAREN GRAFIKOAK


GAIA: URA

MOTA: Arrunta

ADIERAZLEA: Ur kontsumoa

### 05(01) Etxeko ur-kontsumoa biztanleko eta eguneko

**Definizioa:** Etxeko ur kontsumoa  
**Lortzeko metodoa:** Datuak eskatu Konpainia hornitzaileari, eta biztanleria buruzko datuak Udal Erroldari  
**Unitateak:** litro/biztanle/egun  
**Nahi den joera:** GUTXITZEA




1/2008

*cifras* INE

### Uraren hornidura eta trataera

#### Uraren gaineko adierazle nagusiak. 2006

Adierazlea	2006	Urteko aldaketa (%)
Etxeko batz besteko kontsumoa* (litro/biz/egun)	160	-3,6
Banaketa sarean galdutako uraren %	16,7	-6,7
Hornitutako ur bolumena (hm <sup>3</sup> )	3.913	-2,2
Etxeetara hornitutako ur bolumena (hm <sup>3</sup> )	2.616	-2,1



\* Etxeak direnean "kontsumo" hitza erabil daiteke; izan ere, erabiltzen den uraren parte bat giza gorputzera joaten da.


### 160 litro biztanleko eta eguneko.

2006 urtean, Uraren Hornidura eta Saneamenduari buruzko inkestaren arabera, etxeek, udal zerbitzuek, industrietan eta zerbitzuek 3.913 hm<sup>3</sup> ur kontsumitu zituzten.

Espainiako etxeetako ur-kontsumoa 2.616 hm<sup>3</sup> izan zen, hau da kontsumo osoaren % 66,8. Batz besteko kontsumoa 160 litro izan zen biztanleko eta eguneko, aurreko urteko 166 baino 6 gutxiago (%3,6 gutxiago).


Komunitateei dagokienez, batz besteko kontsumorik altuenak izan ziren Kantabriakoa (201) eta Valentziako Erkidegokoa (185); baxuenak, berriz, Nafarroako Foru Erkidegokoa (128) eta Euskadikoa (129).

### Ur kontsumoa (litro/biztanle/egun)



- **Etxeko ur-kontsumoa biztanleko** deitzen zaio pertsona batek eguneroko kontsumorako, garbiketarako, ureztatzeko eta abarretarako behar duen ur kopuruari, eta biztanleko eta eguneko litrotan neurtzen da (l/biz/egun). Komunitate baten edo herri baten benetako ur-kontsumo edota ur-beharrak oso ondo adierazten duen kopuru bat da eta, beraz, zeharbidez islatzen du komunitateak edo herriak duen garapen ekonomiko eta sozialaren maila. Adierazle sozial hau lortzen da kontagailuek neurtutako batz besteko horniketarik, tokiko azterketarik, inkestetarik edo komunitate bati hornitutako kopuru osoa zatituz biztanle zenbatekoaz.
- Espainiako etxeko ur-kontsumoa da **130 litro biztanleko eta eguneko**, AEASen arabera (Europa Press 2010/06/10). Ur-horniduraren eta Saneamenduaren Elkarte Espainiarrak egindako hornidurari eta saneamenduari buruzko inkestaren arabera, Espainian etxeko ur-kontsumoa da 130 litro biztanleko eta egunekoa, Europar Batasuneko (EB) beste herrialdeetakoaren antzera.
- (OME) Osasunerako Mundu Erakundearen arabera **giza kontsumorako ur-kopuru egokia 50 l/biz-egun da** (edateko, janaria prestatzeko, norberaren higienarako eta etxea garbitzeko). Kopuru honi gehitu beharko litzaioke nekazaritzak eta industriak behar duten hornidura, eta, jakina, uretako, ibaietako eta, orokorrean, ur gezaren menpeko ekosistemak mantentzeko behar dena ere. Parámetro hauek kontuan izanda, gutxieneko kopurua 100 l/biz/egun dela jotzen da.

### Etxeetako batz besteko ur-kontsumoa. 2006




### Ur galerak

Hornidura sareetako galerak dira eraginkortasun faltaren adierazleak. Galerak honela bana daitezke: errealak (hausturak, isurketak, matxurak) eta itxurazkoak, esaterako, erregistratu gabeko ura, neurketa erroreak, iruzurrak etab.

2006 urtean, galera hauek izan ziren hornidura sarean sartutako ur bolumenaren %16,7.

Ikus daitekeenez, adierazle hau jaitsi egin da, sareak pixkanaka hobetzen ari dira eta.

### Hornidura sareetan galdutako ura (%)



**Giza gorputzaren %70 ura da eta eguneko 1,5 litro ur edan behar da, gutxi gorabehera, bizitzeko funtzio guztiak ondo egiteko.**

